

MOZIO hau aurkezten dugu, Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoaren eta Nafarroako Parlamentuan tokiko administrazioaren berrantolaketa aztertzeko osatu den PONENTZIAren aurrean eta Toki Erakundeetan izanen duten eraginaz jabeturik:

ETXARRI-ARANAZKO UDALA
ERREGISTROA
Data: 2014 -01- 02
SARRERA: Tokiko Administrazioa

Mozio proposamena:

- 1.- Udal honek Ministro Kontseiluak 2013ko uztailaren 26an onartu zuen Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoaren edukia errefusatzen du.
- 2.- Udal honek Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoak jasotzen dituen neurriak Foru Lurraldean aplikatzearen aurka dagoela adierazten du.
- 3.- Udal honek Tokiko erakundetzea bere osotasunean defendatu dezala exijitzen dio Nafarroako Gobernuari, eta lege honek Lurraldeko Kontzeju eta Udalen eskumen eta funtzionamenduan inolako ondorioz izan ez dezan konpromisoa hartu dezala.
- 4.- Udal hau bereziki kezkatuta agertzen da Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Legea Toki Erakunde txikien gain aplikatua izateko arrisku berezia dagoelako, eta horregatik Estatuko administrazioari zein Erkidegoko Administrazioari hemengo udalerrietan ez aplikatzea exijitzen du. Bide beretik, Toki Erakunde txikiak lege honen aplikazioaren ondorioetatik babesteko bere esku dauden bitarteko guztiak erabiltzea eskatzen dio Foru Gobernuari.
- 5.- Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Legea aplikatzeak zerbitzu publikoetan, eta Foru zein Toki Administrazioari lotutako enpleguan, izan ditzakeen ondorioak ezagututa Udal honek zerikusia duten administrazio guztiei zerbitzuen prestazioa zein lanpostuak eta lan baldintzak bermatu ditzatela exijitzen dei.
- 6.- Udal honek Nafarroako Tokiko Entitateen berrantolaketa lantzeko osatu den PONENTZIAN parte-hartzeko bideak ezar daitezela eskatzen du, bertan proposamen ezberdinak azter daitezen, Toki Entitateen eta zerbitzu publikoen kudeaketarekin zerikusia duten sektoreekin ekarpenak parteka daitezen, eta legearen alderdirik garrantzitsuenetan (finantziarioa, eskumenak eta zerbitzuak) sakonduko duten lantaldeak osa daitezen.
- 7.- Mozio honen berri, bando bidez jakinaraziko zaie herritar guztiei eta komunikabideei. Era berean, Nafarroako Gobernuari, Estatuko Gobernuari eta baita Senatu eta Diputatuen Kongresuari ere eduki hauen berri emango zaie.

Nafarroan, 2014ko ilbeltzean